


Euskal AEko Merkataritza-sektoreko salmentak % 0,3 igo dira 2023ko lehen hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, igoera % 0,3koa ere izan da

Merkataritzaren sektoreak (*Handizkako merkataritza, Txikizkako merkataritza eta Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa* hartzen dituena) % 0,3 egin du gora, urte arteko terminoetan, 2023ko lehen hiruhilekoan, prezio konstanteetan eta egutegiaren ondorioak atera ondoren, Eustaten datuen arabera.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, behin urtaro-ondorioak kenduta, salmentak % 0,3 ere igo dira 2023ko lehen hiruhilekoan.

Merkatariatzako indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Merkataritzaren barruan, salmenten urte arteko bilakaera positiboa izan da hala *Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketaren* sektorean (% 1,9ko hazkundera) nola *Txikizkako merkataritzaren* sektorean (aurreko urteko lehenengo hiruhilekoan baino % 1,7 gehiago). *Handizkako merkataritzaren* sektorean, ordea, salmentak 2022ko lehen hiruhilekoan izanikoak baino % 0,9 txikiagoak izan dira, prezio konstanteetan eta egutegiaren ondorioak atera ondoren.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, urtaroen eragina kenduta, igoerarik izan da *Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketan* zein *Txikizkako merkataritzan*, % 3,8 eta % 0,6 hurrenez hurren hiruhileko artean. *Handizkako merkataritzaren* azpisektorean, aldiz, salmentak % 0,3 jaitsi dira aurreko hiruhilekoaren aldean.

Euskal AEko zerbitzuen kointura-indizea. Merkataritza. Behin-behineko datuak. 2023/I

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
INDIZE OROKORRA	0,3	0,3	0,3
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	1,9	3,8	1,9
Handizkako merkataritza	-0,9	-0,3	-0,9
Txikizkako merkataritza	1,7	0,6	1,7
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Álava	0,9	1,0	0,9
Bizkaia	1,5	0,3	1,5
Gipuzkoa	-1,9	-0,2	-1,9
EMPLEGUA	1,0	0,1	1,0

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2023ko Maiatzaren 16a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen kointura-indizea

Lurraldeka, *Merkataritza* sektorean oro har, Bizkaian eta Araban urte arteko salmentak % 1,5 eta % 0,9 igo dira prezio konstanteetan, hurrenez hurren. Gipuzkoan, aldiz, salmentak % 1,9 jaitsi dira.

2022ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, salmentak % 1,0 igo dira Araban eta % 0,3 Bizkaian. Gipuzkoan, berriz, hiruhileko arteko % 0,2ko jaitsiera izan da.

Euskal AEko *Merkataritzaren* sektoreko landunen indizea % 1,0 igo da 2023ko lehen hiruhilekoan, 2022ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta. Aurreko urteko laugarren hiruhilekoaren aldean, hazkundera % 0,1ekoa izan da.

INFORMAZIO OHARRA

Eustatek eskerrak ematen dizkie lagundu duten establezimendu guztiei eginiko ahaleginagatik aparteko zirkunstantzia hauetan. Haiei esker, hiruhileko honetako indizea % **95,4ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62